

www.noaia.com Noaia !!



Astelehenetik aurrera,
bus-taxi zerbitzua martxan




Pilota Txapelketaren finalekin hasi ziren
San Praixku jaiak Aginagan

zurekin egunero

Hondakin gutxiago sortzeko kanpaina

Erabili egunero etxetik ekarritako zure erosketa poltsa. Sarien zozketan parte har dezakezu edozein poltsa berrerabilgarri erabiliz gero.

Ogi-poltsak **urriaren 5ean, igandea**, banatuko dira okindegietan.

 943 670 249



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gazpuzko Iraultzaerako Departamentua
Departamento de Desarrollo Sostenible



SAN MARKOS-EKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS



Enar

ESTETIKA



munaturre 2, Usurbil **943 571 680**

- FOTODEPILAZIO ESKEINTZA
- %20KO DESKONTUA!
- Besapeak 56€
- Ingleak 72€
- Hanka osoak + ingleak 280€
irailak 22tik urriak 22ra
- 5+1 eskeintza

Albisteak iruditan !!

Hondakinak tratatzeko badira beste eredu batzuk

Astebeteko epean, bitan izan da Pello Lozano. Bitan, errausketa sistema ezartzeak ingurugiroan eta osasunean izango dituen ondorioetaz hizketan. Irailaren 18an hurbildu zen lehenik, Mugikortasunaren Astean antolatutako hitzaldian. Eta pasa den ostegunean, bigarrenik, Alkartasuna kooperatibak deituta.

EHUko irakasle da Pello Lozano eta Urnietako Arnasa plataformako kide. Errauste-planta batek osasunean izugarriko eragina duela dio Lozanok, ikerketa asko iritsi direla ondorio horretara. Alternatibak badirela eta funtsezkotzat jo zuen hondakin organikoen tratamenduan sakontzea. Zabor kopurua dezente jaitsi eta konposta bidez ongarri bihur daitekeelako etxeetako hondakin asko.



PELLO LOZANO ARNASAKO KIDEA SUTEGIN IZAN ZEN, ALKARTASUNAK DEITUTA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publicitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,
Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

AURTEN, SAGAR UZTA OPAROA **5. OR.**

PLENOA, ILEGALIZAZIOEN AURKA **6. OR.**

BUS-TAXI ZERBITZU BERRIA **10. OR.**

BADATOR SAN PRAIXKU **12. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okiddegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

LATAILLADE **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021



UNAI AGIRRE

Bizi legea

Beste udara bat joan zaigu. Hotza dator, euria, gau luzeak. Zuhaitzak biluzten doaz, orbela lurrean, kris-kras zapaltzean. Sandaliak eta udako arropa armairuan gorde behar, hilabete ilunetan erabili ezinik. Herri eta auzoetako jaiak bukatzen doaz, hurrengo urte arte. Zubietan berriz, beste ikasturte bat hasi dugu autobusik izan gabe, euripean ibili behar haur zein guraso, gazte zein heldu. Edo dauka-gunok, autoa hartu, autobusa ukatzen digutenek dioten kontsumo jasangarri horren aurka. Erraustegiaren itzala ere hor dugu, geldiezina. Egindako mobilizazioei entzungor egiten diote zenbaitek, herriaren nahiri muzin, herri kontsultarik ez dute nahi herri kontsulta eskatzen dutenek. Demokrazia? Aro bat bukatu zaigu, eta ez da itzuliko. Baina izango dugu, sutondoan, sagardo botilarekin gaztaina beroak jateko beta, sutondoan goxo-goxo. Orain armairutik atera behar epeltasuna emango diguten galtzerdi lodi eta jertse

goxoak. Jaietan ere, oraindik gelditzen zaigu bat, Zubietan prestatu diguten Euskal Jaia, urriaren 12rako, duela 70 bat urteko jaialdia berreskuratuz. Eta Usurbileko atez ateko bilketak erraustegiaren itzalean argiuneak irekiko ditu, azken finean, kea besterik ez baita erraustegiaren proiektua. Aitzindari izango gara Euskal Herrian, eta emaitzek, ziur nago, erraustegiaren behar eza agerian utziko dute, eta zenbaiten negozio borobila kolokan ere. Hurrengo herri mobilizazioa ez dugu kalean, sukaldean baizik, guttiok txukun-txukun hondakinen gai bakoitza ondo banatuta. Zubietako autobusarekin berriz, Herri Batzarra gogor ari da negoziaketa gogorrean, azkenean lortuko dugu bai, Usurbil eta Lasarterekin lotuko gaituen zerbitzu publiko duina! Aro berri bat dator, itxaropentsua, izan ere, naturan bezala, hildako sendearen lekua haur jaioberriak betetzen du eta. Bizi legea.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: urriak 10. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 6.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Asko dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiazkoa da.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Sagar urtea

Tamaina eskasekoa bada ere, aurtengo uzta oparoa izango da

Sagar asko bildu da iraileko lehen hamabostaldian. Aitor Etxeandia fruitugintzan adituak egin duen azterketaren arabera, aurten sagar-harraren presentzia nahikoa irregularra izan da, kolpe handiak eman gabe.

Iraila hasieran eta, azken urteetan bezala, Gipuzkoako hainbat sagastitan azterketa bat egin zen, aurtengo sagar uzta nolakoa izango den jakin ahal izateko.

Aitor Etxeandia Azpiazu fruitugintzan aholkulari denak zuzendu du azterketa hau.

AITOR ETXEANDIA

“Arbolak sagarrez gainezka zeuden irailaren lehen hamabostaldian”

Honetarako, zenbait sagasti jarraitu dituzte, Beterri aldekoak gehien bat. 14 barietate kontrolatu dira: aritza, errezila, gezamina, goikoetxe, manttoni, moko, mozolua, patzoluta, txalaka, udare marroi, urdin, urtebi haundi, urtebi txiki eta “verde agria”.

Lehen ondorio nagusia: aurten, sagar kopurua handia da oso. Arbolak sagarrez gainezka zeuden irailaren lehen hama-



SAGARRA BILTZEKO GARAIA DA. AZKEN ASTEDTAN, ITXURA HAU ZUTEN INGURUKO SAGASTIEK.

bostaldian, eta jadanik adar asko eta asko hautsi dira pisuaren poderioz. Arboleko sagar kopuru handi honek eragina izan du sagarren neurrian. Baina, orokorrean, sagarrak txiki geratu dira.

Azukre-maila, iazko berbera

Laburbilduz, 2008ko iraileko lehenengo hamabostaldian sagastietan egin den azterketaren ondorio nagusiak hauek dira:

-Aurten ekoizpen handia lortuko da.

-Sagarren tamaina eskasa aipatzekoa da.

-Sagar portzentaje garrantzitsu bat arboletan harjoa. Aipatu behar da, aurreko urtearekin konparatuta, kaltea baxuagoa izan dela.

-Azukre mailari begiratuta, aurten batz bestea 10,8° brix du sagarrak, aurreko urtean bezala.

-Almidoiaren erregresioa 3,6ko indizean dago, hau da, aurreko urtea baino zeozer aurreratua da.

Sagar-harraren presentzia irregularra izan da aurten

Aitor Etxeandia adituak sagarrek harraren kalteak ere neurtu ditu. Udan izan diren tenperatura baxuen ondorioz, sagar-harraren kalteak beste batzuetan baino txikiagoa izan da.

Intsektu hau maiatza hasieran azaldu zen. Bigarren belaunaldia uztailaren erdialde inguruan hasi

zen. Aurten, sagar-harraren presentzia nahikoa irregularra izan da, kolpe handiak eman gabe. Ziur aski udan izan diren tenperatura baxuek eragina izan dute intsektu honen garapean. Iaz bezala, aurten ere, irail hasieran tximeleta berriak azaldu dira eta oraindik min egiteko aukera izango dute.



HARRAK ORAINDIK MIN EGITEKO AUKERA IZANGO DU IRAILEAN.

Ilegalizazioen aurkako mozioa onartu du udalbatzak

Puntu bakarra zuen irailaren 25eko ezohiko osoko bilkurako gai zerrendak; egun batzuk lehenago kaleratutako ilegalizazio epaien aurrean, aurkeztu zen mozioa onartzea. Proposatu eta eztabaidatutako testua udal gobernu taldeak babestuta aurrera atera zen.

EAE-ANV, EHAK, Askatasuna eta Gestorak ilegalizatzea erabaki zuen duela bi aste Espainiako Auzitegi Gorenak. Horren haritik, ezohiko osoko bilkurara deitu zuten pasa den ostegunean (irailak 25).

Ilegalizazio epai horiei lotuta, mozio bat aurkeztu, eztabaidatu eta bozkatu behar zuten udal ordezkariak.

Proposatutako testuak Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubideen aurkako eraso bortitz gisa definitzen du, gatazka politikoa elikatu eta normaltasun politikotik urruntzen duen ilegalizazio estrategia.

Udala herritarren borondatean oinarritu behar dela eta, honenbestez, bere aurkako lege, epai eta erabakiek ez dutela inolako zilegitasunik adierazten da. Bestalde, indar politiko orok baldintza berdinetan parte hartzeko duen eskubidea ere aldarrikatzen da.

Deialdi bikoitza jasotzen du testuak; lehenengoa, udalbatza osatzen duten udal ordezkariak zuzendua. Autodeterminazioa eta lurraldetasuna jasotzen dituen marko demokratiko batean indarrak metatu eta aldaketa politikoa gauzatzeko, dagokien ekarpena egiteko prestutasuna ager dezaten.

Manifestaziorako deia

Bigarren deialdia herritarrei; salbuespen egoera salatu eta "Herriaren borondatea errespetatu: ilegalizaziorik ez!" lemapean antolatuko den manifestazioan parte har dezaten.



LEGEZ KANPORATZEARI BURUZKO MOZIOA AZTERTU ZEN IRAILAREN 25EKO EZOHICO UDALBATZA PLENOAN.

Xabier Mikel Errekondo:

"Egoera beltzenera itzuli gara"

Udal gobernu taldearen izenean, alkate Xabier Mikel Errekondok bultzada politikoa duten epaiak direla gogorarazi zuen, ezker abertzalea kriminalizatu nahi izana gaineratzearekin batera. "Egoera beltzenera itzuli gara, ezagutzen genuen horietara", adierazi zuen Errekondok. Salbuespen egoerara, zehazten zuenez. Konponbiderako giltzarriak zeintzuk diren aipatu ziren; lurraldetasuna eta herritarren erabakitzeko eskubidea. Horri lotuta, irtenbidea zein zen argi utzi zuen alkateak: "Lizarra-Garazi da bidea".

Aralar: "Giza-eskubideen urraketak etengabekoak dira"

Aralarren izenean, Joxe Ramon Furundarenak giza-eskubideen urraketak etengabekoak direla adierazi zuen. Horien guztien aurkako jarrera erakustearekin batera, Auzitegi Gorenaren erabakia deitoragarritzat jo eta zinegotzi guztien eskubide guztiak bermatzea galdegin zuen. Azken egunotako atentatuak gaitzetsi eta ETari armak uztea eskatzearekin batera.

Udal gobernu taldeak babestu zuen

mozioa, Aralarko zinegotziak abstenitu egin ziren eta PSE-EEko zinegotziak aurka bozkatu zuen. EA eta EAJ-PNVko udal ordezkariak ez ziren ezohiko osoko bilkuran egon.

Azken egunotako gertakariak salatzeko herritar ugari bertaratu zen udalbatza aretora. Irailaren 25eko bilkuraren nondik norakoak bertatik bertara jarraitu zituzten.

Bi eguneko itxialdia udaletxean

Datozen egunetarako mobilizazioak iragarri dira. Hona hemen egin diren deialdiak:

Urriak 2-3, osteguna eta ostirala
Itxialdiak. Herri eragileekin bilkura, egoeraren analisia konpartitzeko. Itxialdi amaieran, manifestazioa herrian.

Urriak 4, larunbata
Manifestazio nazionala Bilbon.

Urriak 8, asteazkena
19:00 Herri batzarra Sutegin.

Legez kanporatzea, oposizioaren hitzetan

EAE-ANV legez kanpo utzi zutenean, galdera hau nagusitu zen: udalgintza mailan zer geratuko da? Erantzun bila jo genuen lehengo astean Xabier Mikel Errekondo alkatearengana. Aste honetan, oposizioan diren alderdien balorazioak bildu ditugu. Azpian dituzue balorazioak.

Alderdi denei luzatu zaizkie inkestan parte hartzeko galderak eta hauek dira bildu ditugun erantzunak. Eusko Alkartasunaren ustez, "EAE-ANV alderdi historikoa legez kanpo uztea eta disolbatzea atzera pauso bat da". Hala ere, udal gobernua lanean jarraitu

ahal izango duela uste du EAK, "zeren zinegotzi kargua pertsonala da".

Aralarrek, aldiz, irailaren 25eko udalbatza plenoan egin zuen irakurketa igorri digu erantzun moduan eta hortik hartu ditugu balorazioak. Usurbilgo Aralarrek zera eskatu nahi dio Auzitegi Gorenari, pertsona guztien zein talde guztien eskubide zibil eta politikoak errespetatu ditzala.

PSE-EEko zinegotziak adierazi digunez, gustatu ala ez gustatu, epaiak errespetatu egin behar dira. Hala ere, Usurbilgo udalaren martxari dagokionez, legez kanporatzeak soilik alderdiari eragingo diola (EAE-ANVri), ez alderdi



EAE-ANVREN LEGEZ KANPORATZEAK ZERESANA EMAN DU AZKEN ASTEOTAN.

horren izenean aurkeztu ziren zinegotzici. Orain arte bezala, aurrerantzean ere lanean jarraitzeko aukera izango dutela uste du PSE-EEko zinegotziak.

Inkesta

1. EAE-ANV legez kanpo utzi du Auzitegi Gorenak. Zein da erabaki honen inguruan duzuen iritzia?
2. Epaiak udalgintza mailan eraginik izango duela uste duzue?

Usurbilgo EA



"Iraganeko formula antzua erabiltzea da"

1. Auzitegi Gorenak EAE-ANV alderdi historikoa legez kanpo uztea eta disolbatzea atzera pauso bat da. Partehartze, elkartze eta adierazpen oinarriko eskubideak urratu eta mugatzeaz gain, euskal gatazkaren zurrunbiloa desegiteko ahalegin antzua da, iraganeko formula antzua erabiltzea da.

2. Gobernu estabilitate aldetik ez da aldaketarik izango zeren zinegotzi kargua pertsonala da, eta beraz, gobernuaren sostengatzen duten zinegotzietatik agintean jarraituko dute. Guk hauteskundeetan eman ziren emaitzak errespetatzen ditugu. Usurbildarrek aukera guztiak bozkatzeko aukera izan zuten eta emaitzak onartzen ditugu. Gobernu legitimoa da.

Usurbilgo Aralar



"Erabakia guztiz deitoragarria da"

1. Auzitegi Gorenak EAE-ANV eta EHAK legez kanpo uzteko hartutako erabakia guztiz deitoragarria dela irizten diogu, eta pertsona guztien zein talde guztien eskubide zibil eta politikoak errespetatu ditzala eskatzen dugu. Bi alderdi horiek beren botoekin lortua dute politikan jarduteko zilegitasun osoa. (...) Ipar Euskal Herrian gauzatu diren Batasuneko kideen atxiloketak ere salatu nahi ditugu. Onartezina da politikagintzan aritzen diren pertsonak atxilotzea, eta pertsona guztiek dituzten eskubide zibil eta politikoak bermatuak izan behar dira beti.

2. Zinegotzi guztien eskubide guztiak errespetatuak eta bermatuak izan daitezten lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.

PSE-EE, Usurbil



"Alderdia utzi dute legez kanpo, ez pertsonak"

1. Auzitegi Gorenaren erresoluzioak gehiago ala gutxiago gustatuko zaizkit, bat etorri naiteke ala ez, baina onartu egiten ditut. Beraz, ez ditut azalpenak emango, ezta kritikatu ere, erabakiak gustuko izan ala ez izan. Epaiak aldekoak direnean, badira epaiak justuak direla diotenak; eta aldekoak ez direnean, ordea, desprestigiatu egiten dituztenak.

2. Logikari jarraituz, erabaki honek ez du zertan egungo udal gobernu taldearen lanean eraginik izan behar. Alderdia utzi dute legez kanpo, ez pertsonak. Zinegotzi denek mantentzen dituzte euren ardurapean diren karguak, batzorde ezberdinetan. Beraz, herritarrari begira, Auzitegiaren erabakiak ez du zertan eraginik izan behar.

Haur jaio berriak euskaraz inskribatzeko zailtasun handiak Erregistro Zibilean

Seme-alabak jaio eta handik gutxira egin beharreko lehen lanetako bat, haurra inskribatzea izan ohi da. Eskaria erdaraz gauzatu nahi duenak ez du arazorik, euskaraz egitea hautatzen duenak ordea, trabak ditu nagusi. Tramitazioa garaz amaitzeko, interesdun gurasoei haurra jaio baino bost hilabete lehenago mugitzen hasia gomendatzen zaie.

Geure hizkuntzari, euskarari lotutako eskubide urraketak hor diraute. Gaur egun oraindik, adibideak nonahi aurki ditzakegu. Alor ugari-tan; justizia eta osasun erakundeetan, administrazioan... Herritar gisa euskaraz mintzatzeko aukera eduki eta modu berean kasu egitea edota tramiteak aipatu hizkuntzan egin ahal izatea, oraindik guztiz bermatuak ez dauden hizkuntz eskubideak dira.

Horren guztiaren adibide mordoa dago. Bat aipatzearen, jaio berri den haurra euskaraz inskribatzeko, gurasoek izan ohi dituzten eragozpenak dira. Eskubide bat izanik, argi geratu denez, egunerokotasunean aplikagarria izateko baliabideak falta dira administrazioan.

Epai bat, aurrekari

Bergarako Erregistro Zibilean 2007ko abenduaren 10ean kaleratu zen epaiak argi dio: "Eskaera hori ukatzeak eskatzaileen oinarrizko eskubide urraketa bat suposatuko luke". Sententzian ondorioztatzen denez, "horregatik guztiagatik, eginga dako eskaerari harrera egitea besterik ez dago, inskripzioak euskaraz egiteko liburu berezi bat irekita".

Haurra euskaraz inskribatu ahal izateko epaitegietara jo zuten bere gurasoen eskaria babestu zuen iaz sententzia batek. Hasieran jasan zuten eskubide urraketa honen



2005EKO LEGE BATEK, ORDEA, EUSKARAZ INSKRIBATZEKO ESKUBIDEA AITORTZEN DU.

aurka, edo beste modu batera esanda, legea betetzea eskatzen duen epai hori, bide bera jorratu nahi duenarentzat jada aurrekari batean bihurtu da orain.

BEHATOKIAREN AHOLKUA

"Seme-alaba jaio baino hilabete batzuk lehenago mugitzen hasia aholkatzen du Behatokiak"

Aurrekaria eta aldi berean, erudugarria da Bergaran iazko abenduan kaleratu zen sententzia. Bai behintzat, Hizkuntz Eskubideen Behatokia erakundearentzat. Bertatik, seme edo alaba euskaraz inskribatu nahi duten gurasoentzat tramitazioa burutzea sinplea dela diote, ez duela buruhauste gehiegirik suposatzen. Aldiz, bai ordea denbora dezente. Haurra euskaraz inskribatu nahi duten gurasoek, seme-alaba jaio baino hilabete batzuk lehenago

mugitzen hasia gomendatzen du Behatokiak. Eta prozesua abian jarrita, helburua lortu arte, nondik norako guztiak gertutik jarraitzea.

Aurrekariak hala diote behintzat. 2007an epaitegietan haurrak euskaraz inskribatzearen alde kaleratu zen lehen epaia. Estreinakoz, urte amaieran lortu zuten lehen gurasoek haien haurraren inskripzioa euskaraz egitea, bost hilabeteko borrokaldiaren ostean, Aretxabaletako Erregistro Zibilean. Eta ez ohiko Liburu Ofizialean, erdarak, katalanak edo galegoak ez bezala, euskarak ez baitu halakorik. Haren balio juridiko bera duen Liburu Berezi bat zabaldua gauzatu zen guraso haien eskaria.

Behatokitik gogorarazten denez, 2005eko ekainaren 22ko 12/2005 Legeak inskribapenak euskaraz egiteko eskubidea aitortzen du. Aldiz, eskubide horren aplikagarritasunean daude hutsuneak; administrazioetan eskubide hori gauzatzeko mekanismoak falta dira eta.

Haurrak euskaraz inskribatzeko urratsak

Hizkuntz eskubideen Behatokiak, hizkuntz eskubide urraketeki lotutako kekek jasotzen ditu. Eta baita konponbidea zein izan daitekeen azaldu ere. Haurrak euskaraz inskribatzeko gaiari lotutako informazio eta aholkuak ere eskaintzen dituzte. Hona hemen, Behatokitik proposatzen dituzten urratsak:

1- Deitu Euskararen Telefonora: 902 194 332. Bestela, bidali e-mail bat telefonoa@behatokia.org posta

helbidera.

2- Haiek emandako eskaera dokumentua bete, gurasoen datuak jarrita eta haurra noizko espero den idatzita.

3- Dokumentu horren bi kopia atera eta bi gurasoek sinatu.

4- Bergarako Erregistro Zibileko Epailak emandako autoa erantsi.

5- Inskripzioa egin nahi den Erregistro Zibilera eraman eta sarrera emateko eskatu.

6- Erantzuna jaso bezain laster edota ez bada jasotzen, Behatokiarekin harremanetan jarri.

Aldeko epaia

Legeak aukera eman bai, baina aplikatzerako garaian baliabide edo mekanismo nahikorik ez izatea, hainbatetan gertatu ohi den kontua da. Beste kasu gehiagotan bezala, haurrak euskaraz inskribatu nahi dituen ere egoera horretan aurkitzen da. Baina eskubide hau betearaztera behartzen duen epaia kaleratua dago jada. Aurrekari horrekin, eta Behatokitik emandako gomendioak aintzakotzat hartuta, urrats horiek ematera deitzen dute.

Euskara ikasteko dirulaguntzak banatu ditu udalak

Udalak 2007/2008 ikasturtean euskara ikasi dutenentzat dirulaguntza deialdia egin du. 29 lagunek egin dute aurtengoan eskaera, iaz baino 14 gehiagok. Guztira, 10.127 euro banatu dira.

Iazko deialdiarekin alderatuta, berrikuntza nabarmena egon da: udalitik oso garrantzitsua ikusten da herriarrak euskara ikastea.

ABANTAILA HANDIAK

“12 urtetik beherako seme-alabak dituzten gurasoei matrikula doan aterako zaie”

Horrexegatik hain zuzen ere, herriarrei euskara ikasteko ematen zaiz-

kien dirulaguntzen kopuruak nabarmen igo dira:

-Euskara ikasleek: matrikula-kostuaren %80a jaso dute (iaz %60a).

-Euskara ikasleak, 12 urtetik beherako seme-alabak dituzten gurasoen kasuan: matrikula-kostuaren %100a (iaz %80a). Beraz, dirulaguntza honi esker doan aterako zaie euskara ikastea.

Langabetuentzat abantailak

Euskara ikasleak, langabetuen kasuan: matrikula-kostuaren %100a (iaz %80a). Dirulaguntzari esker doan aterako zaie euskara ikastea.

08/09 ikasturtean ere bai

2008/2009 ikasturtean ere euskara ikasten ari direnek 2009ko udaberri aldera izango dute dirulaguntza eskatzeko aukera.



GUZTIRA, 10.127 EURO
BANATUKO DITU USURBILGO
UDALAK DIRULAGUNTZA BIDEZ.


Usurbil
Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,
Aitzearra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92

 943 36 10 79

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE




Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Bus-taxi zerbitzu berria datorren astean jarriko dute martxan

Urriaren 6tik aurrera, martxan izango da landa-eremua herri gunearekin lotuko duen garraio zerbitzu berria. Astelehenetik ostiralera, egunean lau aldiz, Kaxkoa, Kalezar, Aginaga, Txokoalde, Urdaiaga, Santuenea, Zubieta eta Txikiertitik igaroko da bus-taxia. Zerbitzua doakoa izango da.

Landa-eremuko herritarren artean egindako ikerketen emaitzetan, inguru hauetako biztanleek mugitzeko duten arazoa ageri zen. Orain, gabezia horri aurre egin asmoz, Behemendik eta Udalak bultzatutako elkarlanak, herri barruko komunikazioa eta herritarren mugikortasuna hobetzea helburu duen garraio zerbitzu berria jarriko du martxan, datorren urriaren 6tik aurrera; bus-taxia delakoa.

Astelehenetik ostiralera lau aldiz eta ordubete inguruko tartean osatuko du landa eremua eta herri gunea lotuko dituen ibilbidea. Goiz, eguerdi, arratsalde



BUS-TAXI ZERBITZUA ERABILTZEAGATIK EZ DA ORDAINDU BEHAR.

eta iluntze partean igaroko da, zehaztu diren ordu eta geltokietan.


Ezinduen kasuan, etxeraino

Mugikortasun arazoak edo adina tarteko, geltokira joatea ezinezkoa zaionari,

haren etxeraino joango zaio bus-taxia. Baina horretarako, aldez aurretik honako zenbakira deitu behar da; 630 64 35 96.

Gerora, bus-taxiaren eragileek zerbitzu berria baloratu eta jarraipena eman edo ez erabakiko dute.

Ibilbide hau osatuko du, astelehenetik ostiralera



Palestina eta Israel arteko gatazka, hitzaldi batean aztergai

Aitzaga elkartearen egoitza itxirik jarraitzen duen arren, herrira begirako ekimenak egiten segitzen du Aitzagak. Palestina-Israel gatazkari buruzko hitzaldia antolatu dute datorren astean Sutegin. Martxelo Diaz kazetaria eta nazioarteko gaitan aditurarekin batera, Palestinatik etorri berri den brigadista batek hartuko du parte hitzaldian.

Aurten bete dira 60 urte Israelek Palestinako lurretan, indarrez, bere Estatu sortu zuenetik. Geroztik bi herri horien arteko gatazka ez da itzali. Ia egunero izaten dugu gertakizun gordin eta tamalgarrien berriren bat. Baina egunerokotasunean harrapatuta, askotan gatazka horren muina bera ahantzi egiten da edota ez da eza gutzen.

Aitzaga elkarteak aditzera eman digunez, "erasoen albisteak edo agintarien adierazpenak izaten dira nagusiki jasotzen dugun ia berri bakarrak. Hori dela eta, interesgarria iruditu zaigu gatazka horren nondik-norako-



HITZALDIA URRIAREN 9AN
IZANGO DA SUTEGIN, 19:30EAN.

ak azaltzea, dakitenek gogora dezaten eta ez dakitenek jakin dezaten".

Ordu eta Erdiko hitzaldian, azken sei hamarkada hauetako gatazkaren giltzarriak azalduko dituzte eta, batez ere, gaur egun zertan diren gauzak, jendea nola bizi den, zein diren haien itxaropenak, nola ikusten duten etorkizuna...

Aitzagak deituta, "usurbildar guztiak gonbidatuta daude, finean telebista eta kazeten ikuspegitik harago, munduan borrokan ari diren beste herrien berri izatea ere interesgarria dela uste baitugu".

Igandean, Gure Pakearen bazkaria

Igande honetan, ospakizun ederak dira Gure Pakea elkartearen kideek. Aurten laurogehi urte betetzen dituzten bazkideen omenezko bazkaria.

Atxega jauregian elkartuko dira, eguerdiko 14:00etan. Hori bai, bazkarirako txartela alde aurretik erosi behar zen.

Dena den, igande honetako bazkaria baino lehen, eguerdiko 11.30ean, meza izango da parrokan, euskaraz.

Urriaren memoria ikastaroa

Memoria lantzeko ikastaroa antolatu du Gure Pakeak. Aukeran, euskaraz edo gaztelera egin ahal izango da. Izen-ematea irailean egin behar zen baina ikastaroa urriaren hasiko da.

Ordutegi berria

Gure Pakea egoitzak, bestetik, ordutegi berria du. Goizez, 9:00etatik 12:00etara eta arratsaldez, 16:00etatik 18:00etara.

Ikastaro ugari Santuenea elkartearen

Santuenea Kultur Elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu: yoga, dantza, autoestima, antzerkia, pintura eta plastika, maketa, jostea...

Urriaren hasiko dira ikastaro hauek. Informazio gehiago: 943371535/943365031.

Yoga ikastaroa Aginagan

Aginagako Zaharren Egoitzan yoga ikastaroa prestatu dute. Nahi duenak izena eman dezake. Horretarako Zaharren Egoitzara jo behar da edota telefono zenbaki honetara deitu: 943 36 63 40.

Urriaren 1ean asteazkena hasiko da yoga ikastaroa eta ikasturtean ere, saioak asteazkenetan egingo dira, ordutegi honetan: 20:00etatik 21.30era. Informazio gehiago Zahar Egoitzan (Argitxurengatik galdetu).

Zirri Borro eskulan tailerra

Urriaren hasiko da Zirri Borro eskulan tailerra. Ikasturte berrian, pintura eta eskulan ikastaroak eskainiko dira. Informazio gehiago honako telefono zenbakian: 609 41 38 83 (Susana).



Larunbat honetan, desafioa errioan

Trainerila Txapelketa jokatu da larunbat honetan Aginagan

Iaz San Praixkuetan izan zuen harrera ikusita, bigarren aldiz Aginaga paretik igarotzen den Oria ibaia estropadetako lehia tokian bihurtuko da larunbat honetan, urriak 4. Pasai San Pedro, Pasai Donibane, Orio eta aurtengoan Ortzaika ordezkatu duen Hondarribiarekin batera, Usurbil eta Aginagaren aurrez aurrekoa ikusi ahal izango da berriro. Ikuspegi onena hartu nahi duenak, garaiz joan dadila. Proba 17:30ean hasiko da.

Desafiorako gogo handia eta aspaldikoa zela argi geratu zen iaz. Eta aurtentzen esperientzia errepikatzea erabaki du Aginagako Jai Batzordeak. II. Trainerila Txapelketa ospatuko da Oria ibaian, larunbat honetan.

HONDARRIBIA, LEHEN ALDIZ

“Ortzaikakoek ez parte hartzea erabaki dute, haien ordezkariak Hondarribia etorriko da”

Iaz oriotarrak nagusitu ziren sailkapenean, oraingoan iazko marka mantendu nahiko dute. Haren aurkarietako bat, Ortzaikakoek aurtentzen txapelketan ez parte hartzea erabaki dute.



IAZ, ORIO IZAN ZEN NAGUSI.

Ordezko lanak, estreinako datozenak hondarribiarrak dira.

Lehia zuzena duten lau traineruek osatuko dute saioa; Pasai Donibane eta Pasai San Pedro, eta Aginaga eta Usurbilek. Gertuko desafioari begira,

gogora dezagun iaz hiru segundugatik marka hobea egin zutela Aginagakoek usurbildarrek baino. Aurtentzen emaitza bera errepikatuko al da? Edo Usurbilgoak aurreratuko dira?

Aginaga eta Usurbil, nor baino nor

Aginagako trainerila

Patroia: Sarai Lizaso.

Arraunlariak: Hodei Alkorta, Erik Aranburu, Gorka Puertas, Jabier Puertas, Joxemari Otamendi, Andoni Peña.

Usurbilgo trainerila

Patroia: Jon Ander Fernandez.

Arraunlariak: Joxe Antonio Lasa, Gorka Arruti, Iban Maritxalar, Aitor Alkorta, Berdaitz Larrarte, Urko Manterola.

San Praixku, asteburu honetako egitaraua

URRIAK 3 OSTIRALA

19:00 Jaietako hasiera suziri eta buruhandiekin.

Ondoren, herri poteoa eta txosnen irekitzea.

21:00 Gazte afaria soziedadean.

23:00 Egan taldearekin dantzaldia.

URRIAK 4 LARUNBATA,

SAN PRAIXKU EGUNA

11:00 Meza. Gero, jubilatuentzat hamaiketako Aginaga sagardotegian.

17:30ak aldera II. Trainerila Txapelketa: Aginaga, Usurbil, Orio, Pasai San Pedro, Pasai Donibane, Hondarribi.

23:30 Kontzertua: Mendeku Itxua, Betagarri, Inser Show.

URRIAK 5 IGANDEA

9:00 Plater tiraketa.

17:30 Herri kirol lehia: Aginaga A, Aginaga B, Igeldo, Zubieta.

19:00 Bertsolariak.

Aurtengo Pilota Txapelketak baditu irabazleak

Duela urte batzuk hasi zen Aginagako Pilota Txapelketa. Dagoeneko, jai egitarauko ekitaldi estimatuenetakoa da. Aurreko igandean jokatu ziren finalak. Kirolak eman dio, beraz, jaiei hasiera.

Aginagako Pilota Txapelketa maila ezberdinetan jokatu da. Kadete mailan, Mendizabal-Zinkunegi bikotea nagusitu zen finalean, Uli-Galarraga bikoteari 22-10 irabazi eta gero.

Jubenil mailan, Santxo eta Ostolaza

izan ziren nagusi. 6 tantotan geratu ziren Arruti eta Aizpitarate gazteak.

Eta nagusien mailan, Esnal-Gorrotxategi bikotearentzat izan zen txapela. Esnal-Gorrotxategi 22, Lizaso-Pebet 8, azken emaitza.



IRUDIAN, MENDIZABAL-ZINKUNEGI KADETEAK, SARIAK JASO BERRITAN.



IMANOL ESNAOLAK ETA XABIER ERRASTIK IRABAZI ZUTEN PALA TXAPELKETAKO FINALA.



SANTXO-OSTOLOZA BIKOTEA IZAN ZEN NAGUSI JUBENIL MAILAKO FINALEAN.



NAGUSIEN MAILAN GARAILE, ESNAL ETA GORROTXATEGI PILOTARIAK IZAN ZIREN.



Kima

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

CAF-Elhuyar sariak martxan

Hiru sari nagusi eta gazteentzako aparteko sari berezia


Urtero legez, CAF enpresak eta Elhuyar Fundazioak CAF-Elhuyar sariak jarri dituzte abian, XV. edizioa jada. Aurtengo ekitaldian hiru sari nagusi eta gazteentzako sari berezia egongo dira jokoan; eta guztira 4.200 euro banatuko dira saritan.

Zientzia-dibulgazioko XV. CAF-Elhuyar Sariak abian dira jada. Aurtengo sariketan, dibulgazio-artikulu hoberenak saritzeko hiru sari nagusi eta gazteentzako sari berezi bat egongo dira jokoan: lehen sarituak 1.200 euro eskuratuko ditu; bigarrenak, 800 euro; eta hirugarrenak, 600 euro. Gainera, 25 urtetik beherako egileentzat bada beste sari bat ere: 400 euroko saria artikulu onenari.

Lanak, abenduaren 1erako

Lanak jasotzeko epea 2008ko abenduaren 1ean (egun hori barne) amaituko da, eta egileek Elhuyar Fundazioaren Usurbilgo egoitzara bidali beharko dituzte beren artikulua. Aurkeztutako lanak zientziaren eta euskararen alorrean eskarmentu handia duen epaimahai batek aztertuko ditu, eta hark erabakiko du zein diren XV. CAF-Elhuyar sarietako irabazleak. Irabazleen izenak 2009ko martxoan emango dira eza-gutzerara.

Sariketa honetarako oinarriak www.zientzia.net web gunean ikus daitezke dagoeneko. Web gune



ZIENTZIAREKIN ETA
DIBULGAZIOAREKIN LOTUTAKO
LANAK SARITUKO DIRA.

horretan, aurreko edizioetako lan irabazleak ere ikus daitezke.

XV. CAF-Elhuyar sariak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordearen 2008ko Euskalgintza deialdiaren diru-laguntza jaso dute.

XV. edizioa

Beasaingo CAF enpresak babesturik, zientziaren dibulgazioa sustatzeko sariak sortu zituen Elhuyarrek duela hamalau urte. Erronka hari tinko eutsiz, 1994az geroztik urtero antolatzen dira zientzia-dibulgazioko CAF-Elhuyar sariak.

Ehunka zientzialarik eta idazlek beren lanak argitaratzeko aukera aparta dira sariok, lortu duten oihartzunak erakusten duenez.

Bekak eskatzeko garaia Udarregin

Aurten ere, bekak eskatzeko aukera dago Udarregi ikastolan. Eskatera egin nahi dutenek, dagoeneko, inprimakiak Ikastolako idazkaritzan jaso ditzakete.

Orri hori beteta eta beharrezkoa den dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute. Dena den, iaz bezala, aurten ere Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara edo Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasa direnek ez dute dokumentazio osoa eraman behar. Informazio gehiago, dena den, idazkaritzan jasoko dute interesatuek, 943 36 12 16 telefono zenbakira deituz.

Gogoan izan beka eskatzeko epea urriaren 15ean amaituko dela.

Igande honetan, Kilometroak Iruran

Gipuzkoako ikastolen jaialdia, Gaurten, Irurako herrian ospatuko da. Igande honetan, goizean goizetik, izango da ikuskizunik aukeran.

Irurako ikastolan EITB gunea jarriko dute eta bertan Betizu, Pitxin eta Potxin pailazoak, Txan magoa eta Poxpolo eta Mokolo pailazoak arituko dira, besteak beste.

Musika taldeen artean, Zea Mays, Tapia Ta Leturia, Che Sudaka eta Betagarri. Egitarau osoa webgune honetan: www.kilometroak.net

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

KALITATERO
EUSKAL OKELA

ALKORTA AUTOZERBITZUA

FRUTAK
BARAZKIAK
ETXEKO PRODUKTUAK
IZOZTUAK

Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

Errebotea, ikuskizun aparta

Endika Abril errebote Txapelketa ikusgarri suertatzen ari da. Igande honetan, goizeko 11:00etan, Zubieta 1 eta Oiarpe taldeak arituko dira aurrez aurre Zubietako Errebote plazan.

Itzuli bakarrera jokatzen ari dira Endika Abril errebote txapelketan parte hartzen ari diren Euskal Herriko zazpi kirol taldeak.

Urriaren 12ra arte luzatuko da lehen fasea. Egun horretako partidek marraztuko duten sailkapenak finale-rako hautagaietako bat nor izango den ezagutaraziko du. Lehen postuan dagoenak, zuzenean, txapelketa amaierako norgehiagoka jokatzeko txartela eskuratuko baitu. Haren aurkaria, bigarren eta hirugarren sailkatuak aurrez aurre jarriko dituen finalerdian erabakiko da. Urriaren 19an, Villabonan. Finala berriz, astebete beranduago, hilaren 26an, Oiartzunen jokatuko da.

Txapelketa zabaltzen

Urte luzez kirol txapelketa gune bakarrean jokatu da, Zubietan oso osorik. Orain ordea, beste bi eskentokirekin partekatzen du txapelketa; Villabona eta Oiartzunekin.



BEHAR ZANA, OIARPE, ZUBIETA 1 ETA ZUBIETA 2, KANBOARRAK, KAPITO HARRI (UZTARITZE) ETA LUZAZ GAZTE (DONIBANE LOHIZUNE) DIRA AURTENGO ENDIKA ABRIL TXAPELKETAKO PARTE HARTZAILEAK.

Endika Abril Txapelketako partidak

SAILKAPEN LIGAXKAKO PARTIDA
URRIAK 5 IGANDEA, 11:00ETAN
Zubieta 1-Oiarpe, Zubietan.
Luzaz-Kapito, Oiartzunen.
Behar Zana-Kanbo, Villabonan.

FINALERDIA
Urriaren 19an igandea, Villabonan.

SAILKAPEN LIGAXKAKO PARTIDA
URRIAK 12 IGANDEA, 11:00ETAN
Oiarpe-Kapito, Oiartzunen.
Luzaz-Zubieta 2, Zubietan.
Behar Zana-Zubieta 1, Villabonan

FINALA
Urriaren 26an igandea, Oiartzunen.

Usurbil Futbol Taldeak bazkidetza kanpaina jarriko du martxan

Futbolaz gozatzeko aukera izatea, oztoporik gabe. Abian duten 2008-2009 kirol denboraldirako Usurbil Futbol Taldeko kideen nahia da hori. Lau talde arituko dira nor baino nor, lehia bizian. Lehen eta bigarren mailako Erregionaletako talde bana, emakumezko eta kadeteen mailako beste bi talderekin batera. Baina lehian hasi baino lehen, arazo handi bati aurre egin beharko dio Usurbil FT taldeak: dirulaguntzak ez dira iristen eta gastuei aurre egiteko laguntza eska-

tu diete herritarrei.

Momentuz, egoera ekonomikoa indartzeko bi egitasmo dituzte esku artean; jada abian duten publizitate kanpaina eta laster martxan jartzeko asmoa duten bazkide kanpaina. Bestalde, kirol taldetik adierazi dutenez, Harane futbol zelaiko taberna irekitzeko lanean ari dira.

Futbol taldekoei laguntza eskaini edo aholkurik eman nahi duenak honako helbide elektronikora idatzi dezake: futusurbil@yahoo.com



PUBLIZITATE KANPAINA ERE ABIARAZI DUTE USURBIL FT TALDEKO KIDEEK.

Zumarte abesbatza, Gazte Koruen Lehen Topaketan

Gazte Koruen Lehen Topaketan parte hartu du Zumarte Musika Eskolako abesbatzako talde batek. Beste 150 gazterekin batera, kantu eta espresio-dramatizazio lanak hobetzeko teknikak ikasi dituzte.

Aurreko asteburuan, Gazte Koruen Lehen Topaketa egin zen Hondarribiko aterpetxe batean, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatuta. 13 eta 23 urte arteko gaztetxoek euren lana hobetzeko ikastaropak jaso zituzten.

Kantu lana hobetzeko, David Azurza eta Basilio Astulez zuzendariak aritu ziren irakasle lanetan. Eta espresioan zein dramatizazioan sakontzeko, Nagore Orbeltzu bilbotar aktore-dantzariaren laguntza jaso zuten.

Esperientzia aberasgarria

Zumarte Musika Eskolatik adierazi digutenez, "gogor baina gogotsu lan egin dute eta esperientzia oso polita eta aberasgarria izan da".

Gazte Koruen Topaketaren azken egunean, kantaldia eskaini zuten Zarautzen.



ARGAZKIARI BEGIRA, ZUMARTE ABESBATZAKO TALDEKIDE HAUEK PRIMERAN PASA ZUTELA ESAN DAITEKE.

Urriaren 17an, multimedia ikuskizuna

Musika eta irudiak. Horiek dira Mokaua izena duen ikuskizunaren osagai nagusiak. Logela talde bizkaitarra Suteegin arituko da urriaren 17an ostirala, Nafartarrak Kultur Taldeak antolatu duen ikuskizunean.

Ez da kontzertu huts bat izango. Hori baino gehiago izango da. Musikariak zuzenean jotzen ari diren bitartean, bideo jockey batek irudiak tarteak dituelako. Sarrerak aldeztatik erosi daitezke Txiribogan.

Eguneko goardiako farmaziak

Urriak 2, osteguna

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 3, ostirala

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Urriak 4, larunbata

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Urriak 5, igandea

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Urriak 6, astelehena

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Urriak 7, asteartea

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Urriak 8, asteazkena

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Urriak 9, osteguna

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Urriak 10, ostirala

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 11, larunbata

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Urriak 12, igandea

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Correa Farmazia (22:00-09:00), Perkaiztegi kalea, 8 Hernani 943 33 60 22

*Usurbilen, soilik eguerdina arte

Larunbat gauetan, autobus zerbitzu bereziak

Irailaren 20az geroztik, Zumaia eta Donostia arteko larunbat gaueko autobus zerbitzua martxan dago. Geroztik, larunbatero, Zumaia-tik Donostiara doazen autobusak ordu honetan pasa ohi dira Usurbildik: 23:35ean, 01:35ean, 03:35ean eta 05:35ean.

Aurkako noranzkoan, Donostiatik Zumaia-ra, autobusak Donostiatik ordu honetan ateratzen dira: 00:00etan, 02:00etan, 04:00etan eta 06:00etan (Usurbilen ere geldituko da).

Informazio gehiago, 902 543 210/
www.euskotren.es.

Agenda !

Urriak 5 igandea

- Aurten 80 urte bete dituzten herri-tarrei omenezko bazkaria. Meza 11:30ean, bazkaria 14:00etan Atxegan. Antolatzailea: Gure Pakea.

- "Mozart txakurra", haurrentzat zinea. 17:00etan, Sutegin. 5-10 urteko gaztetxoentzat. Sarrera: 2 euro.

Urriak 9 osteguna

Palestina-Israel gatazkaren jatorria, hitzaldia Sutegin. Hizlariak: Martxelo Diaz kazetaria eta Palestinatik etorri den brigadista bat. 19:30ean. Antolatzailea: Aitzaga elkarte.

Urriak 12 igandea

Euskal Jaia Zubietan. Goizean, plazan, umeentzako jolasak, trikitalariak, errebote partida, kantu-poteoa. Herri bazkaria eta arratsaldean erromeria Tapia ta Leturiarekin.

"Mozart txakurra", igande honetan zinea Sutegin

Igande honetan, Sutegiko auditorioan, "Mozart Txakurra" izeneko filma eskainiko da euskaraz. Emanaldi bakarra izango da, arratsaldeko 17:00etan. 5 eta 10 urte arteko haurrei zuzenduta dago eta sarrerak 2 euro balio du.

"Mozart txakurra" filmean, Robby eta bere lagunak dira protagonista nagusiak. Eta noski, Mozart txakurra. Robby eta bere lagunak Mozart txakurra ezagutu dute. Mozart salbatzea izango da abenturazko film honetako protagonisten zeregin nagusia. Pelikula honek 77 minutuko iraupena du.



IGANDE HONETAN,
ARRATSALDEKO 17:00ETAN
HASIKO DA PELIKULA.

1983ko kinto afaria

San Praixkuekin batera, urtero Slegez, 1983an jaiotakoak afaritarako bilduko dira, urriaren 11n Aginaga sagardotegian. Aldez aurretik, Irratin 19:30ean jarri da elkartzeko hitzordua.

Izena ematea zabalik izango da urriaren 4tik 8ra arte, Ardi Beltz garagardotegian jarrita egongo den zerrendan.

1951ko kinto afaria

Urriaren 18an larunbata, 1951 urtean jaiotako kintoak bilduko dira afari baten inguruan. Sekaño erretegian elkartuko dira.

Kinto afari honetan izen eman nahi duenak, Sekaño erretegiara deitu dezala aldez aurretik. Hauxe da erretegiako telefono zenbaki honetara: 943 362 773.

1955eko kinto afaria

Kintoen hilabetea izendatuko dugu urria. Izan ere, urriaren 18an 1955 urtean jaiotako kintoek ere afari bat egiteko deialdia egin dute. Urriaren 18an larunbata elkartuko dira, Antxeta jatetxean. Izena emateko deitu telefono zenbaki hauetara: 943 36 14 69 (Maribel) 943 36 60 39 (Maribi)

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Puntapax kalea, 16 behea
(Artzabal). 943 36 09 80

Papera jartzea eta
Pinturak orokorrean
FERNANDO
PINTURAK
943 366 019
943 363 460
Kale Nagusia 1 - USURBIL

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687.95 12 25

CLIMATA-T
klimatizazio orokorra
687 858 390
climata_t@yahoo.es

ETXEBIZITZA

- Usurbildar gazte bat alokairuan dagoen etxe baten bila, Usurbilen. Tf: 652 750 789.
- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usurbilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilaguntzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 47.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukalde, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 220.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukalde, egongela eta trasteroarenkin. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Citroen Saxo diesela daukat salgai. Matrikula SS-BC da. 656734413 (Marijo).
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila

gabilta. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.

- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajeen gوندakoa. 620625823.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00era edo bestela kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Kamarera bat behar da, Antxeta tabernan lan egiteko barran, esperientziarekin. Astelehenetik ostiralera lan egiteko. 943 37 03 44.
- Neska euskaldun bat behar da Usurbilgo Kinkildegian lan egiteko. Interesatuak deitu 609099824 / 943214508 telefonora.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsalde zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabilta. Orduzkoan flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tardeka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.

Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko goizeko 7:30etik goizeko 9:30/10:00ak arte. Umeak zaindu edota ikastolara eramateko, astelehenetik ostiralera. 647 742 893.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Garbiketara, gaixoak zaintzen... edo bestelako lanetan. 608 00 54 06.
- Lan bila nabil. 608 83 50 33.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak

emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

- 18 urteko neska usurbildar bat eskaintzen da uztailean goizez edo arratsalde zaintzeko. 621626500
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 366 710.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko dispo-nibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- BMW 650F motrara daukat salgai. Egoera onean eta garajean gوندakoa. 666988050.
- Yorkshire terrier arrazako txakur bat galdu zaigu. Bilatuz gero deitu zenbaki honetara: 609 653 440. Txakurra itzultzen duena saritua izango da.
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Bakarkako haur ohe bat salgai koltxo eta guzti. Tamaina: 90 x 1,90. Oso gutxi erabilia eta polita. Interesdunek: 629 730 299.
- Arropadenda batetarako altzariak eta mostadore bat saltzen da merke. 943 363 448.
- Txandak baten jertsea galdu da, urdin argia eta Adidas markakoa. 10 urteko ume baten tamainakoa. 943 37 68 97.
- 1,5 metroko somiera eta koltxoia salgai. 943 36 65 89 telefono zenbakian.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberrian umea egingo dutenak. 653719176.
- Portokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberrie-kin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Aritz egurrezko aulkia salgai. 943 36 20 49.
- 2. eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak beritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net

JAIOTZAK

Mattin Olasagasti Arin,

irailaren 12an jaio zen.

June eta Urko Barrondo Iparragirre,

irailaren 23an jaio ziren.

HILDAKOAK

Jose Maria Zubeldia Zubeldia

Irailaren 27an hil zen

79 urterekin, Atxegalde



Oharra: *Jaiotzak*, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan telefono zenbaki honetara: 943 360 321. E-posta: erredakzioa@noaua.com



**Negu honetan,
ahaztu hotza.**

**ESKAINZA
PARRGABEA**

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziario berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziario berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gauko tarifa baduzu, edo 65 urtez garakoa bazara, 570 € jasoko duzu; haiakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, baimuko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandararen gaineko edozein adaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAIurekin harikuntza alia egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

Herriaren borondatea errespetatu: ilegalizaziorik ez!



Usurbilgo Udalak

**MANIFESTAZIOA URRIAK 3,
19:30tan Udaletxe aurretik**